

Goierri tarra

363. zenbakia 2009ko ekainak 19

Burdinaren mendian bisita daiteke

LURPEKO ZERAIN

ARGI
OPTIKA

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Ε Μ Ψ Ξ

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA Salvatore Ferragamo EXTÈ ROMEO GIGLI



reklame

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa


- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

Goierritarraren
zenbaki honekin
gehigarria

San Joan eta San Pedro Segura Olaberria Mutiloa



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Dionisio Amundarain.

5. Ingurugiro txokoa: Begi-niniak
zabaltzen direnean (I).

6. Euskara txukuntzen:
Denetik (XXII)

8. Erreportajea: Zerain, burdinaren
mendiaren errailetan.

14. Elkarrizketa: Javier Elzo
soziologo beasaindarra, gizarteko
balioen ikertzailea.

20. Kirola: Josu Sarriegi, Greziako
futbolean.

24. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Euskal Herriko liturgian kantu berriak eta berrituak eta giza eskubideak



Dionisio Amundarain

Autore intelektualen giza eskubideen inguruan, bi arazo aski desberdin planteatzen da gaurko munduan.

Batetik, Internet dela eta, aztertzaileek ondo zorrotzu behar izaten dituzte begiak ikasleen edo aurkezleen zein lan diren kopia huts eta zein jatorrizko egiaztatzeko. Adibidez, begiak zorrotz samar erabilia, Goierriko HITZA-n, 2009-06-06an, 8. orrian, ageri diren hiru txisteetarik, zein eman daiteke hor berean aipatzen diren egileen jatorrizko lantzat?

Bestetik, zenbateraino errespetatzen dira autore intelektualai, beren lanekiko, dagozkien giza eskubideak? Badirudi, askotan, besteren lanak kopiatzea, aldatzea, plagiatzea... gauza arruntzat ematen direla.

Horiek horrela, liturgiako testuen inguruan dakusadan arazo txiki/handi bati lotu nahi natzaio.

Liturgiako testuek ez omen autorerik

Inoiz arazo hau harrotu izan dudanean, hala esan didate: Liturgi liburuetan ez da zilegi testuen autoreak aipatzea. Halere, bada salbuespenik. Mezako irakurgaietan Bibliako testuen autoreak aipatzen dira, historikoenak nahiz tradiziozkoenak. Orduen liturgian ere aipatzen dira bai Bibliako testuenak, baina bestelako irakurgai luzeenak. Baina ez kantuenak.

Neure buruari galdegin izan diot: zergatik ez beste testu labur eta kantuenak? Gauza bera: zergatik ez: musikaren autoreenak? Ez dut erantzun arrazoizkorik aurkitu. Soil-soilik: Roma locuta, causa finita (Erromak hitz egin du, bukatu da arazoa).

Agian, norbaitentzat balio duen «arrazoibidea». Niretzat, aldiz, giza eskubideen beste urraketa handi bat gehiago. Egileak bere eskubideak ditu. Irakurleak ere bai. Egileak eskubidea du bere obra aitortu diezaioten. Irakurleak eskubidea du egilea zein eta nor den jakiteko; irakurtzen eta kantatzen ari den testua edo/eta musika zein testuingurutan eгина den jakiteko.

Eliz hierarkiaren delako 'lege' hori ez da legea, ez da zuzena, ez da gizabidezkoa. Gizabidearen aurka doa. Dela Elizaren Zuzenbide Kanonikoan datorrela (ez dakit hala ote den), dela ohiturazko sasi-tradizioan datorrela, dela... ez da gizabidezkoa; beraz, ez da lege.

Besterik ezean, egin beharrekoa

Askotan beharturik eta ohiturik gertatu ohi gara lege ez diren «legeak» ezinbestean jasan behar izaten. Eman dezagun horietakoa dela gorago aipatu dudan kasua.

Besterik gabe, besoak gurutzaturik utzi behar ote dugu barrabaskeria horrek nagusi izaten jarrai dezan. Ez, ezin gera gintezke esanez: nik ezin aldatu dut hori esanez.

Ez. Ezin gera gintezke planto eginik. Gutxienez, bi mailatan dakusat derrigorrez egin beharrekoa.

Batetik, Erromako instantzia zurrinak baino sentiberago diren –izan beharko luketen– tokian tokiko elizetako goi-instantziek egin beharrekoa. Alde batetik eta bestetik Erromako instantzia zurrin horietan jo beharko lukete. Bakar-

ka nahiz taldeka. Eta ez instantzia hierarkikoek soilik, baita, eta batez ere, instantzia liturgiko, teologiko, pastoral, kanonikoek ere bai. Jakina, giza eskubideekiko sentiberatasuna –ez soilik, kasu baterako, ETaren biktimekikoena– jakintzat eta gauza errealtzat ematen dut.

Bestetik, autoreen izena liburu ofizialetan ez jartzearen zuzengabekeria, neurri batean konpontzeko balegoke biderik. Zergatik ez argitara eman izen horiek liburu ofizialean separa bezala. Edo, bestela, Gotzaindegiko Aldizkarian edo tirada handi samarreko beste euskal aldizkari batean? Horretarako ez da aitzakiarik, ez da eragozpenik. Aski da giza eskubideekiko sentiberatasun-apur bat. Besterik ez. Hori eta gehiago zor zaio egileari, irakurleari.

Arazo larriagoa

Liturgiako testuen autoreekiko errespetu-falta, eskubide-urraketa, ez da bukatzen esandako puntu horrean. Hau da larriagoa den hori: inolako begiramenik gabe, autoreen testuak aldatu egiten dira. Ez soilik ortografiari dagokionez. Edukia bera aldatzen da hainbat kasutan, neurri handian.

Arazoa ez litzateke izango hain larria, baldin eta adieraziko balitz zein aldaketa egin den, zergatik eta zeinek. Baina testuaren autorea aipatzen ez bada, askoz gutxiago adierazi ohi da egin ohi d(ir)en aldaketa(k).

Arazoa puzten ari naizela inork pentsa ez dezan, hona Orixeren gorazarre bati egin zaion mutilatzea. Orixeren Gorazarre batez ari naiz. «Urte Guziko Meza Bezperak» liburuan dakar Orixek, 444. or.; eta horren ordaina «Orduen Liturgia» delakoan dator, 586. or.:

Orixek

Odola atean zirtatuz
Aingeru-ezpata auldu zun,
itsas-ura lekutu zan
etsaiak iretsi zitun.

Orduen liturgia

Aldendu zen Aingerua
ate odolduetatik;
lekutu zen itsasoa,
etsaiak urperaturik.

Gure Orixek burua altxatuko balu! Arrazoi osoaz harrotuko lituzke tximistak eta trumoiak!

Zoritarrez, testuak inolako adierazpenik gabe aldatze hau ez da liturgiaren mundukoa soilik. Horrelako edo antzeko bat baino gehiago eginak gara, inondik ere, jende asko. Duela gutxi, adibidez, Xabier Leteren poesia batekin –«Sinesten dut egun batetan hilen naizela» delakoarekin– egin nuen horrelako esperientziarik. Nik, arazo jakin baterako, poesia hori nahi, Internetara jo eta, gutxienez, bi forma desberdinetan agertu zitzaidan. Jatorrizko liburuaren bila joan, eta Internekoetan hainbat aldaketa eginak zituztela egiaztatu nuen.

Bai. Askotan agertu ohi dugu sentiberatasun koxkorra giza eskubideekiko. Eskubide batzuekiko, bai, mila irrintzi eta mila oihu. Baina sentiberatasun globala urrun.

Dena den, gaurkoan, Liturgiaren munduko aldrebeskeria azpimarratu nahi nuen.


Begi-niniak zabaltzen direnean (I)

Astronomiaren urtea ospatzen ari garela eta... artikulatu bat idaztea gonbidatu ninduen lagun batek.

Zerura begira jartzen garen bakoitzean gauza bitxiak ikus ditzakegu. Animatzen zaituztet edozein mendi edo toki ilunetara joatera (Nafarroa, Errioxa, Pirinioak...). Astronomiako gida, esku-planisferioa, prismatiko batzuk hartu (teleskopioaren bat baduzue ere eraman daiteke baina disfrutatzeko nahikoa da aurrez esandako objektuekin), eta gogoia jarritz gero, prest gaude.

Lagunekin egiteko aktibitate polita da, baina bakardadean ere disfruta daiteke. Are gehiago, uda garaian. Inoiz baino aproposagoa da, tenperatura eta ikuspenagatik.

Begiak iluntasunera ohitu behar dira, iluntasunean ikusten baitira, argitan ikus-



Elbuiar Zientzia eta Teknika

ten ez diren gauza harrigarriak. Orduan honako espektakulua ikusi ahal izango dugu, bereizgarrienak esaterako:

Hartza Nagusia, Hartza Txikia (Iparizarra bere ertzean dago eta Iparra non dagoen esaten digu), Cas-

siopeia, 7 Ahuntzak, Pleyadeak, Andrómeda galaxia eliptikoa (Gure galaxia antzekoa da eta begi bistaz ikus daiteke), Esne bidea (zoragarria da)...

Hari beretik, ekainean ikusiko diren Planetak, hauek izango dira: Merkurio nahiz eta zaila izan, egunsentian ikusiko da ipar-ekialdeko zeru-ertzean Artizarra, arratsaldeko zeruan ikusiko da, ipar-mendebaldeko zeru-ertzean. Martitz, gorrixka da, Cancer konstelazio ondoan ikusiko da, gero Leo eta Saturnora hurbilduko da. Jupiter teleskopio batekin bere orban gorri handia ikus daiteke eta honen sateliteak. Saturno nire begiko planeta da, bere eratzun lirainarekin, Leo konstelazioan egongo da. Urano Aquarius konstelazioan ikusiko da. Neptuno, bi azken hauek gutxi ikusten dira.

Maribel Zufiaur

Kronologikoki ikusi daitekeena

Ekainak 19: Ilargia Artizarren aurretik igaroko da, (honi konjuntzioa deritzo): 4:45ean. Merkurio eta Pleyadeak lerrotatuta ikusiko dira: 6:10ean

Ekainak 20: Ilargiaren alde iluna, errauts-argiak, argituko du: 5:15ean. 5:45ean Artizar, Martitz, Ilargia, Pleyadeak eta Merkurioa. Lerrotatuta ikusiko dira.

Ekainak 21: Udarako Solstizioa. Urtearen gaurik motzena. 00:46ean. Artizar eta Martitzen planeten arteko distantzia motzena (perigeoan). Ilargi "zaharra", fina eta lirain, ekialdeko horizontean. 5:55.

Ekainak 22: Ilargia ilberrian. 14:36ean.

Ekainak 23: Ilargia perigeoan. Lurretik distantzia motzena: 358.018 Km-tara. Handia kusiko da: 6:00tan.

Ekainak 24: Ilargiaren errauts argia ikusiko da. Mendebaldeko horizontetik aterako da: 21:45ean. San Joan Sua.

Ekainak 26: Ilargia Regulus (Leoren izar argitsuren) aurretik igarotzen da: 21:45ean.

Ekainak 29: Ilargia ilgoran: 6:25ean.

JAKIN BEHARREKOAK

Peruko Indigenak Napo ibaia, Amazonasen ibaiadarra moztu dute beraien eskubideen urraketei erantzunez.

Ibaia kanoa eta kable baten bidez oztopatu dute itsasontziak ibaia gora ez pasatzeko. Petroleo enpresak eta gobernua beraien lurra mehatxatzen duten erabakiak hartu dituzte. Amazonas osoan protesta ugari daude beraien eskubideak zapaltzen dituzten legeak bertan behera gera daitezten.

Baiona-Hendaia AHTpe-nintsularekin egin behar zuten lotura garatzeko azterketa bertan behera utzi dute. Michele Alliot-Marie ministroak esan duenez, ingurugiro eta paisaia arazoak izan dira proiektua gelditzeko arrazoiak. Dagoen trenbidea hobetzearen alde egingo dutela adierazi du.

El Soplao, Kantabriako kobazuloaren ondoan Kretazikoko anbar meatokia aurkitu dute obra batzuen ondorioz. 25 m luzeratu, bertan orain dela 110 milioi urteko intsektu eta artropodo espezieak aurkitu dituzte. Honez gain, oso bitxia den anbar urdin purpura ere azaldu da.

Papua Ginea Berrian 50 espezie berri deskribatu dituzte. Gehienak armiarmak dira, hiru igel berri eta salamankesa espezie bat.

Denetik (XXII)

Maizpide
euskaltegia

“Gudari askok galdu zuten bizitza Intxortetan”

Egia da, bai, Gerra Zibilean gudari asko aritu zirela borrokan matxinatu ziren Franco eta Mola jeneralen soldaduen aurka; egia da, era berean, Elgeta eta Elorrio artean dagoen Intxorta mendian (Hirutontorreta ere esaten diote, hitzak berak dioen bezala, hiru tontor ditu eta) borroka gogorak izan zirela eta hortxe lortu zutela gudariak aurkarien erasoari ondo baino hobeto eustea. Baina, zoritxarrez, askok galdu zuten bizia... eta “bizia” diogu, ez baitugu, inondik inora, “bizitza galdu zutela” esaterik!

Nola bereizi behar ditugu, beraz, **bizia, bizitza eta bizimodua**? Guztien itzulpena (adieraren arabera, noski) “**vida**” da gaztelaniaz, baina garbi dago ezin ditugula edonola (nahierara) erabili. Hona hemen, zalantzaren bat baduzue, horixe argitzen lagunduko dizuen azalpena:

- **Bizitza**, kronologikoa da. “*Pierre Topet “Etxahun” en bizitza nabigabez betea izan zen*” edo “*Bizitza honetan tokatuko zain gogotik lan egin beharra, Pakita!*”.
- **Bizia**, biologikoa da. “*Mexikoko baurtzaindegi batean 38 haurrek galdu zuten bizia joan den astean*”.
- **Bizimodua**, ogibidea edo bizitzeko modua. “*Hau bizimodu tristea, Antselmo! Gogor lan egin eta xentimorik ez!*” edo “*Agureak zainduz ateratzen du bizimodua Aurre Maria kolonbiarrak*”.

Saiatu beharko genuke lagunei, familiartekoei... gaizki erabiltzen badute, zuzentzen, azken batean, gure euskararen onerako izango da eta!

“Patxi eta zu ondo eramaten zarete”

Zuzenketa bat baino gehiago behar du goiko esaldi horrek. Hasteko, Patxi eta biok behar du... eta “eramaten zarete” hori, berriz, erdarakada garbia da! Nola behar du? Bada, honela:

✓ *Patxi eta biok ondo konpontzen zarete. (egokia)*

Ondorengo esaldietan ere ez da batere txukuna “eraman” aditzaren erabilera:

✗ *Liernira daraman bidea konpontzen ari dira. (desegokia)*

✓ *Liernirako bidea konpontzen ari dira. (egokia)*

✓ *Liernira doan bidea konpontzen ari dira. (egokia)*

✗ *Kasu hori daraman epaileak Baltasar du izena. (desegokia)*

✓ *Auzi hori duen epaileak Baltasar du izena. (egokia)*

✓ *Auzi horren ardura duen epaileak Baltasar du izena. (egokia)*

✓ *Auzi horretako epaileak Baltasar du izena. (egokia)*

✗ *Espainiako Alderdi Popularrak Europan daraman politikak Berlusconiaren gustukoa omen da. (desegokia)*

✓ *Espainiako Alderdi Popularrak Europan duen politikak Berlusconiaren gustukoa omen da. (egokia)*

✓ *Espainiako Alderdi Popularraren Europako politikak Berlusconiaren gustukoa omen da. (egokia)*

“Prakak ondo geratzen zaizkizu”

Beste hau ere ez da, bada, batere herrikoia, nahiz eta denok ondo baino hobeto ulertu. Horrela behar du:

✓ *Praka horiek ondo (ederki) ematen dizute eta, gainera, ondo doazkizu alkandorarekin. (egokia)*

Ondorengo esaldian ere “geratu” sobera da:

✗ *Gonbidatuta geratzen zarete gure alabaren ezkontzara. (desegokia)*

✓ *Gure alabaren ezkontzara gonbidatuak zaudete. (egokia)*

✗ *Robin Soderling Roland Garros-eko finalerako sailkatuta geratu da. (desegokia)*

✓ *Robin Soderling Roland Garros-eko finalerako sailkatu da. (egokia)*

Ederki ematen din soineko horrek, neska!

Hiri ere ez doakin, bada, batere gaizki blusa zuri hori ilearen kolorearekin!



**Ondo konpontzen diren bi neska gazte,
Larrunarri begira dutela**

Zuzendu, behar izanez gero...

1. “Hau bizimodu tristea” zioen txurro-saltzaileak bertsoaren batean.
2. Joxantoniori Eroskin eman diote eskuan daraman “poltsa ekologiko” hori.
3. Raxoi eta Rosa Diez oso ondo konpontzen direla entzun diot kazetari bati.
4. “Horrelakoa da bizitza, egin ezazu behar duzuna!” kantatzen zuen Fermin Muguruzak duela urte batzuk.

OHARRA: denak zuzenak, alajaina!

Berogailu dotoreak kolore eta akabera ezberdinekin



**APROBETXATU
PROMOZIO BEREZIA
ORAIN!**




Orain beheko suetan erakusketa berria :

Biomasa EVE planarekin

Bertan 40 aparatu baino gehiago ikusteko aukera
(zurezkoak, gasezkoak, pelletezkoak)

Beheko suak neurrira eta bertan diseinatuak

Sukalde eta bainu gelatan adituak



**Zeramikan
azken
diseinuak**

**Bainugelatan
aukera
zabala**



NZ

MATRIKULA IREKIA

BATXILERGOA

Ekainaren 29tik Uztailaren 3rarte

LANBIDE ZIKLOAK

AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik Uztailaren 12rarte

MATRIKULA

Ekainaren 29tik Uztailaren 3rarte

Batxilergoa

Zientziak eta Teknologia

Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

Administrazioa eta Finantzak

Informatika Sistemen Administrazioa

Nazioarteko Merkataritza

Idazkaritza

Ziklo Ertainak

Administrazio-Kudeaketa



nazaret zentroa

Aldakonea, 36 · Bº Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com



kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza



Burdinaren mendiaren errailetan

Zeraingo Burdinaren mendian barneratu gara Aitziber Makazaga zeraindarrarekin. Monumentu Multzo izendatu du Eusko Jaurlaritzak. Aizpitta adieraztegia, Polborina, labeak... burdinaren prozesua bertatik ikus eta ikas daiteke, proiektu osoa oraindik bukatzeko badago ere. Teknologiarik aurrera-tuenaz baliaturik, iraganera salto egin dugu.



JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Santa Barbara Bidea z/g, URRETXU Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia. A-D ereduak.

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✕ Ospitaleko erizain laguntzailea
- ✕ Zaharren egoitzetan
- ✕ Eguneko zentruetan
- ✕ Lehen artapenetako laguntzailea
- ✕ Kontsulta pribatueta
- ✕ Hortz-kliniketan laguntzailea
- ✕ Gaixoen zaintza



AURREMATRIKULA:
Ekainaren 1etik 12ra
(biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:
Ekainaren 29tik
uztailaren 3ra
(biak barne)

“Zergatik ustiatu da burdina inguru hauetan eta zergatik ez beste toki batean? Horretarako 115 milioi urte atzera egiten dugu. Pentsatzen jartzen gara, ea nolakoa izango ote zen. Inguru hau dena, itsasoa izango zen. Ur azpian egongo zen hau dena eta ur azpian biziko ziren izakiak oskoldunak izango ziren. Horiek hiltzen ziren garraian, azalean daukaten karearekin, plataforma bat sortzen joango zen. Plataforma hori sortuko zen, puntu altu batean, azpian magma bat zeukalako. Geologiaren munduan ezaguna da magma hori Mutiloako Domoa bezala eta erdigunea hementxe omen zen. Orain dela 60 milioi urte, puntu garai batean zegoen magma horrek kanpora atera nahi zuelako, goraka bultzaka bultzaka, horregatik zegoen puntu garai horretan plataforma hori. Kanpora atera nahi horrekin, orain dela 60 milioi urte pixkanaka dena kanporatzen hasten da eta magma horrek daukan minerala kareharriarekin nahasten hasten da. Hortik sortzen da burdin karbonatua, labeetan erretzeko erabiltzen zen mineral hori.

Beste alde batetik, kareharri horrek pitzadura batzuk dauzka. Eta pitzara horietan ere minerala sartzen joango da eta hortik sortutako burdin betak, beraiek hemen aurkitu nahi izango zituzten burdin beta horiek. Halako ba-

tean, dena kanpora aterako da. Kanpora ateratzen denean, plataforma hori bitan hausten da eta hausten den garraian, erdiguneak behera egiten du. Orduan, Aizpuru mendia eta Burdinaren mendia sortzen dira.

Kareharritan nahastuta zegoen burdin karbonatoaren bila ibili ziren. Baina aldi berean, baita beta horien bila. Horiek askoz ere aberatsagoak zirelako burdinetan eta tratamendu handiegirik gabe burdinola batean sartzeko aukera zeukatela. Erromatarren garaitik hasi ziren burdin bila. Erromatarren garaian, zein landare zegoen begiratzen zuten, zein motatako lurra zegoen arabera, burdin bila hasten ziren.



Baina geroago, Erdi Aroaren hasieratik, edozein tokitan hasten ziren burdinaren bila. Gero, ingelesak eta alemaniarrek teknologia handiagoarekin etorri ziren. Bi teknologia ezberdinak ibili zituzten. Geroago, nahiz eta jendeak ez duen askotan lotzen, Patricio Etxeberriaren garaia etorri zen eta enpresa finlandiar bat ere ibili zen inguruan. Ingelesen eta alemaniarren garaian, pentsatzen zuten, hemen bigarren Bilbo bat zegoela. Ez zuten aurkitu beraiek nahi zutena. Burdinaz aparte beste material batzuk daude eta garai hartan beraiek ez zituzten ezagutzen. Material hori zen, sulfuroa ateratzeko zuten zinka ateratzeko”.

Naturaren ziklo berria

“Ondorioak, kalteak ere izan zituen: mendia erabat apurtu zen. Bertan lanean ibilitakoek ere esaten zuten, ez zutela uste inguru honetan zuhaitzik

ere ez zela aterako, dena kiskalita eta txikituta zegoelako. Baina 50 urte hauetan, bere onera bueltatzen hasi da, ziklo berri bat hasi du. Urkia eta

hagina dira adibiderik garrantzitsuenak. Urkia, burdin asko dagoen lurretan ateratzen den zuhaitza da. Hagina, Gipuzkoako armarrarian azaltzen den zuhaitza da, erromatar garaian ezaguna zen, aurkariak pozointzeko, oso pozointsuak direlako. Ganaduak ere janez gero, orduerdi batean hil egiten dira. Desagertzeaz dagoen zuhaitza da baina inguru honetan ugaria da. Animaliak ere asko dira. Mendi ibilbideetan aipatu ditugunak, okila, saguzaharra (galeriatan bizi dira gaur egun) eta arkanborea edo kalarlodoa da. Basoa garbia mantentzeko beharrezkoa da. Hildako zuhaitzetan bizi da eta bera ardurtzen da basoa garbia mantentzen. Gizakia basoa garbitzen hasi denetik, desagertzeaz dagoen intsektua da. Garrantzitsua dela azalduz, etxetxo bat prestatu diogu”.

Aurreko mende basierako argazkian ikus litekeen bezala, garai hartan mendia erabat soilduta zegoen.



Hiru altxor: burdin karbonatoa, egur ikatza eta burdin kiskalia



“Burdin karbonatoa, egur ikatza eta burdin kiskalia. Horiek dira gure altxorrak. Burdin karbonatoa galerietatik eta harrobietatik ateratzen zuten minerala da. Egur ikatza erabiltzen zuten labeetan erretzeko eta labetik ateratzen zena, burdin kiskalia zen, burdinoletara eramaten zutena. Bur-

din karbonatoz aparte, beruna ere ateratzen zen, batez ere gerra garaian. Balak-eta lortzeko, berun bila ibiltzen ziren Lehen Gerra Karlistan. Presoak ibili ziren lanean, berunaren bila”.

Azpitta adieraztegi, garai batean ingenierien etxea izan zen etxean, meatzariek ibiltzen zituzten tresnak,


baserri giroa, garai hartako bizimodua ikus daitezke. “Gaur egun ezinezkoa denez burdina ateratzen lan egitea, gure helburua, garai batean nola lan egiten zen jendeari azaltzea da. Hasiera batean, burdin karbonato hori harrobietan aterako zuten”, argitu du Aitziber Makazagak.

Lurpeko bizia: Polborina

Hasiera batean, meatzariek, ur azalean lortzen zuten burdin karbonatoa. Honetarako harrobi handiak zulatu zituzten. Meatzariek pikatxoi eta porraz egiten zuten lana harrobietan. Geroago, dinamitaren laguntza ere izan zuten. Bertan lortutako materiala, animalien laguntzaz, herrestabidez, trenez kiskalketa labera eramaten zuten.

Lur zoruko minerala bukatu zenean, barrubideetatik, galerietatik hasi ziren burdin karbonatoa ateratzen. Hemen ere, pareta zulatu ondorenean, dinamita erabiliko dute pareta txikitzeko. Dena den, behin sarrera irekita, aitzur eta palarekin irekiko zituzten lurrazpiko bideak. Oraindik ere aitzur arrastoak garbi ikus daitezke galerietako ormetan. Bertan lortutako minerala labeetara garraiatzen zuten bertan kiskaltzeko. “Sarrera dinamitarekin puskatzen zuten baina handik aurrera, aitzurarekin eta palarekin. Aitzur markak ugariak dira”.

Zeraingo Burdinaren mendian, Polborina izeneko galeria berreskuratu eta jendea bertan barneratzeke prestatu dute zeraindarrak. Monumentu multzo honetan, ikerketak egiten ari dira Aranzadikoak. Aitziber Makazagak adierazi digunez, “gauza asko ateratzen ari dira. Labe bat aurkitu dute eta pentsatzen dugu, Gerra Karlista ga-



raian beruna ateratzeko erabiltzen zutena. Seguru ez gaude oraindik. Ingelesen garaiko karrilak azaldu dira... Lan asko dago egiteko oraindik”.

Galeriak, ingelesez garaikoak direla uste dute, nahiz eta alemaniarrek ingelesek zabalduko bideak aprobe txatu zituzten, hormigoia baitago gale-riaren zati batean. Eta hormigoia, alemaniarren ekarpena izan zen. Alemaniarrek, hormigoiz babestutako zatian,

polbora gordetzen zuten. Hortik dator- kio izena: Polborina.

Galerien segurtasuna bermatze-arren, ingelesek egin zuten bezala, zu- rezko habeez indartu dute galerien egitura.

Makina bat zeraindar galerietan lan egindakoa da. “Hiru egunean galeria- tik atera gabe lanean aritutakoak badi- ra. Lo, jan eta lana”, gogoratu du Aitzi- ber Makazagak.

XX. mendearen lehen hamarkadan, meategien ustiapen biziagoa ahalbidetu zuten eraikinak egin ziren: mineral eta ikatz biltegiak, kiskaltzeko labeak, kable bidezko garraio sistema... Meategi osoan erauzitako minerala labeetaraino ekartzeko garraio-sistema korapilatsua ezarri zen: herrestabideak, meatze-trenbideak, abereentzako errail-sistemak... Kiskaltzeko labeetan, minerala kiskaliz bere burdin proportzioa handitzen zen.

Hala ere, Zeraingo Meategietako ibilbidea ulertzeko, garaikide ziren Mutiloko eta Ormaiztegiko eraikinak ere kontutan hartzea ezinbestekoa da. Garai berrean, Mutiloan ere konpainia berak ustiatuko zituen bertako meategiak. Bertan lortutako burdina Ormaiztegaraino garraiatuko zen. Hemendik, trenez Gipuzkoako burdinoletara edo eta Pasaiaiko portura eramango zen. Pasaiaitik Europa osoan banatuko zuten itsasontziz lortutako burdina. Irudian, burdinaren prozesua ikus daiteke:

1.- Mineral gordinaren biltegia: bagoneta bidez ekarritako minerala biltegiara deskargatzen zen. Hemendik, bagoneta bidez minerala labeen gaineko zulo edo atera eramaten zen.



2.- Kiskaltzeko labeak: burdin mineralaren karbonatoa kiskaltzen zuten hemen 900 gradu inguruan. Burdina kiskaltzeko erregai gisa ikatza erabiltzen zen. Labea bi burdin mineral geruza artean ikatz geruza bat jarritz betetzen zen. Labeek etengabe lan egiten zuten, beheko ateetatik burdin kiskalia atera ahala, goitik labea betetzen zen.

3.- Kiskalitako mineralaren biltegia: labetik atera-

tako mea bagoneta bidez azpiko biltegiara eramaten zen. Biltegiak dauzkan 8 ahoetan mineral-baldeak betetzen ziren eta kable batetik zintzilik Mutiloaraino garraitzen zen burdin kiskalia. Egunean 40-50 tona mineral kiskaltzen zen.

4.- Garraioa: hasiera batean minerala Mutiloaraino garraiatzen zen, handik meatze-treanean Ormaiztegiara eramaten zen eta hemen, Norteko Trenean Pasaiaiko

portura bideratzen zen. Pasaiaitik itsasontziz Europako merkatuetara eramaten zen. Gerora, zuzenean Ormaiztegiko trenarekin zuzenean lotzen zituen kable sistema eraiki zen.

5.- Aizpita: 1900. urtean ingelesek eraiki zuten eraikin hau ingeniarietzako eta administraziorako bulego bezala erabiltzeko. Gaur egun burdinaren mendi honetako paisaia, ondare, historia... dago bertan.



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak

☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhua dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxux:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



MENDIZABAL

abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena

686 325 511- Juan Antonio

686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoharagia.com




Mendizabal Baserria

20.248-Arama (Gipuzkoa)

Bildumak eta datuak


Manuel Laborderen piezak

“Tolosarra bera, baina Zerainen udako etxea zeukan. Bilduma osatzen ari zen. Pieza mordo bat bildu zuen. Hil zenean, Diputazioari eman zizkieten eta zati bat hona ekartzea lortu dugu. Dena ekartzea ezinezkoa zen, izugarrizko bilduma delako. Neurria eginda omen zituen hainbat pieza. Barandiaranek ineta Pio Barojarekin asko ibili zen eta etnografian lan asko egin zuen. Alemaniako; Nurenbergeko epaiketa irrati bidez jarraitu omen zuen eta Zeraingo meategia aipatzen omen zen behin baino gehiagotan. Historikoki gauza asko falta da ikertzeko. Esaten da, alemaniarrek espioi lanak egitera etorri zirela eta espioi lan horiek ezkutatzeko Gipuzkoako burdinola guztiak hartu zituztela. Gerra garaia zen. Hemen ibili zirenak, soldaduak zirela esaten da”.



Langile kopurua

1810. urtean	17 gizonezko, emakumezko 1
1837. urtean	26 gerra preso (I. Gerra Karlista)
1851. urtean	8 meatzari
1863. urtean	31 meatzari
1873. urtean	23 soldadu (II. Gerra Karlista)
1907. urtean	173 meatzari
1911. urtean	162 meatzari
1921-1923	18 meatzari
1938-1942	142 meatzari
1956. urtean	6 meatzari



Meategiko lanbideak eta soldatak 1938an (pezeta/egunean)

Laguntzaileak (14-16 urte)	5,50 pezeta
Laguntzaileak (16-18 urte)	6,75 pezeta
Peoi erdia (18-21 urte)	8,00 pezeta
Emakumeak, kantinerak eta mineral garbitzaileak	6,00 pezeta.
Zaindaria	9,00 pezeta
Peoia	9,00 pezeta
Makinista	9,50 pezeta
Errementaria	9,50 pezeta
Konpresorearen mantentze lanak	9,50 pezeta
Harri zulatzailea	10,50 pezeta
Artillaria	9,75 pezeta
Arotza	9,75 pezeta
Argiketaria	10,00 pezeta
Meatzeko arduraduna	12,50 pezeta
Langileburua	12,50 pezeta
Ingeniaria	12,50 pezeta

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Zeraingo meategien historia

Historia luzea dute Zeraingo Aizpeako meategiek. XI. mendeko datuak badaude. Azkenekoz burdina 1951. urtean ustiatsu zuten burdina. Burdina ustiatzeko teknologia ezberdinak erabili izan dituzte. Esate baterako, hasierako garaietan, haizeoletan erretzen zuten burdin karbonatoa burdin oxido bihurtzeko. Haizeolak, bi zulo besterik ez zituzten egitura mugikorak ziren.

1512an, Errege Katolikoak, Aretxabaletako Otoratarrei eman zien meategi hauek ustiatzeko eskubidea. 1671an Felipe II. ak bere oinordekoen esku utzi zuen 200 galeria baino gehiagoren ustiaketa.

1825era arte egin zuten lan meategi hauetan Otoratarrek. Garai haietan, meategiak ustiatzeko eskubidea ematen zien dokumetua aurkezteko eskaera egin zitzaion. Hauek dokumentu hori ez dutenez, meategiak ustiatzen jarraitzeko eskubidea kendu zieten. Otoratarren garaian atera zuten burdina, Deba Garaiko eta Urola Garaiko burdinoretara eramane zuten.

Bertako eta kanpoko konpainiak

Otoratarrei ustiaketa kendu ondoren, 1826an, Lorenzo Gastoni eta Francisco San Martini eman zitzaion meategiak ustiatzeko baimena.

Lehen Gerra Karlistak iraun zuen bitartean, meategiak ejerzitoaren esku egon ziren eta 'Reales Minas de Cerain' izena eman zitzaion meategiei. Gerrarako balak egiteko behar zuten berun sulfuroa ateratzen ejerzitoko kideak eta presoak ibili ziren.



XIX. mendearen erditik aurrera, burdin ustiaketa geroz eta indar handiagoa hartzen joan zen.

1856an 'La Unión de Cerain' agertu zen. Elkarte honen helburua, Zerainen zeuden burdin, berun eta beste metal batzuk atereaz, meategiak ustiatzea zen. Lortzen zen burdina Beasaingo eta Aguraingo Ajurria galdaregietara eramane zuten.

1892an 'The Cerain Iron Ore Company Ltd' konpainia ingelesaren esku gelditu zen meategien ustiaketa. Hauek eraiki zituzten gaur egun Burdinaren Mendi honetan dauden labeak, minerala garraitzeko bapore tren, airetiko kablea eta abar.

30eko hamarkadaren hasieran, alemanari kapitala duen 'Compañía Montaña S.A.' agertu zen Aizpeako meategietan. 1938an, konpainia hau kapital espainoleko 'Compañía de explotaciones mineras Aralar S.A.'-an bihurtu zen.

Espainiako gerra ondorengo urteetan, autarkia

ekonomikoa erabatekoa zen garaian, burdingintza-metalgintza alorreko Patrizio Echeverria S.A. enpresa legazpiarrak lantegia hornitzeko autonomia bermatu beste biderik ez zuen izan. Txatarraren prezioak goia jo zuen 1940ko urte haietan ea, egoera hartan Zerain eta inguruko herrietako minerala ia urte bihurtu zen, lehengai gisa erabiltzeko. "Alemaniarrek egun batetik bestera alde egin zuten Zeraindik eta labea erdi beteta utzi zuten. Eta utzita bezala dago".

Zeraindarren lan lekua

Zeraindarrek baserrietan egiten zuten lan mendeetan zehar. Baina familia aurrera atera nahian, baserriaren osagarri beste lanbide batzuetan ere aritzen ziren, tartean, burdinaren ustiaketa.

XX. mendetik aurrera, asko aldatu zen zeraindarren bizimodua. Baserria aurrera ateratzeko diru iturri garrantzitsu bihurtu zen burdinaren ustiaketa. Gizonezkoa zen meatzetara la-

nera joaten zena eta emakumea gelditzen zen baserriaren ardurarekin.

Herriarrez gain, inguruetako eta kanpotik lanera etorritako jende ugari ibili zen meategietan lanean; asturiar, gaztelar, eta batik bat galiziarrek. Aizpe auzoa, dena jendez bete zen.

Zeraingo baserriak apopilo betetzen joan ziren. Apopilo hauek baserrian lo leua eta otorduak izatearen trukean, meatzetako lanak amaitu ondoren, baserriko lanetan laguntzen zuten.

Herriko biztanleriak gora egin zuen eta 600 biztanle baino gehiago izateraino iritsi zen.

1950. urtetik aurrera, ordea, herriaren beherakada etorri zen. Industrializazioaren ondorioz, merkeago zen burdina kanpotik erosita ekartzea meategietan lanean ibili eta burdin gutxi lortzea baino. Horregatik meategiak itxi eta bertakoak inguruko herrietako industrian hasi ziren lanean, eta herriko biztanleria gutxitzen joan zen.



Javier Elzo soziologoak, Eusko Ikaskuntzaren saria jaso berria du. Pozik jaso du saria. Irakasle lana utzia badu ere, ikertzen eta irakasten jarraitzen du

oraindik ere beasaindarrak. Ordubeteko ikasgaia eman digu, luzeago ere gustura ari-tuko baginen ere. Batez ere, giizarteko ba-lioez buruz sakondu zuen beasaindarrak.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

Deustuko unibertsitateko irakasle lana utzia duzu, baina oraindik ere lanean jarraitzen duzu.

Irakasle bezala jubilatuta dago bai. Duela hiru urte erretiratu nintzen. Baina lan asko daukat, ikerketarekin. Momentu honetan, ez dakit zenbat ikerketa ditudan esku artean, lau, bost... denbora asko eramaten dit. Hitzaldiak ere ematen ditut. Irakaskuntza utzi nuen, urtean, 75 hitzaldi eman nituen, urritik ekainera. Duela bi urtetik 60 hitzaldira jaitsi nuen eta aurten ez naiz pasatuko 40tik. Eta hurrengoan ea 30ekin gelditzen naizen.

Hitzaldiak zeri buruzkoak?


Lau edo bost gaietan lan egiten dut beti. Gai horietaz eskatzen ez badidate, ezezkoa esaten dut. Gaztedia da gai horietako bat. Gaztediari buruz lan asko egin ditut, gizarteko baloreei buruz ... ikerketa asko egin ditut drogomenpekotasunari eta alkoholismoari buruz. Azken hamar urteotan, familiar buruzko ikerketak egin ditut batez ere. Erljioari buruz. Horiek dira nire gaiak. Baloreetan gero eta gehiago sakondu nahi dut.

Lotsa ematen dit gazteei buruz hitz egitea. 67 urte ditut eta nire arrebak esaten didan bezala, nola da posible gazteei buruz galdetzea eta hitzaldietara zu entzute-ra joatea. Egia esanda, arrazoi pixka bat ere badauka. Nik neuk ere nabaritzen dut, orain dauden gauza batzuk ulertzea zaila egiten zaidala.

Zein adibidez?

Teknologiari buruzkoak, zein harreman sortzen diren... Oso gai garrantzitsua da. Beraz, nahiago dut baloreetan gehiago sakondu. Komunikazio birtual sistema dago gaur egun. Birtuala izatean, zein ondorio daukaten baloreak eraikitzerakoan. Pentsa, tradizionalki baloreak nola transmi-

Eusko Ikaskuntzaren saria



Deustuko Unibertsitateko Soziologia doktore eta katedradun emeritua. Soziologian eta Erljio Zientzietan lizentziaduna Lovainako Unibertsitatean.

Forum Deustuko lehendakaria da eta Deustu Gizarte Balioak proiektuko zuzendaria.

“Ikerkuntzaren eta hezkuntzaren alorrean egindako lanagatik” Javier Elzo soziologoak, Eusko Ikaskuntza saria jaso du. Bi izan dira bere ikerketa lanean ardatzak: gazteak eta gizarte balioak. Irakasle lanetik erretiratu baldin badago ere, ikerketa lanetan jarraitzen du, eta baita hitzaldiak ematen ere.

Gustura jaso du saria beasaindarrak. “Pozgarria da benetan. Ez dizute egunero horrelako sari bat ematen. Niretzat garrantzitsua sari hori, unibertsitateek eman didalako, nire ofizioko jendeak. Zazpi errektoreak ziren epaimahaiakoak, Euskal Herriko unibertsitate guztietakoak. Deusto, EHU, NUP, Mondragon, Uned, Opus Dei eta Baionakoa. Nire lana asko gustatzen zait. Jendea ju-

bilatzeko gogoz egoten da, ni ez. Nik nahiago nuke, ordenadorean idazten ari naizela, hilko banintz. Horrela hiltzea nahiko nuke. Oraintxe sinatuko nuke”.

titu izan dira? Familiaren bidez. Oraindik ere hor dago. Orain dela 40 urte, erlijioa zegoen, eta hori gero eta gutxiago dago familia. Politika, hori ere gero eta gutxiago. Geroago, zer sortu zen indar handiarekin? Lagunak eta lagun giroa. Gure garaian ere hor zegoen baina beste indar batekin. Orain dela 30 urte, telebista sartu zen. Orain berriz, duela 5-8 urte, interneta sartu zen. Interneta, telefono mugikorrak, teknologia berri hauek.

Non dago aldaketa? Telebistan, sozializazioa pasiboa zen. Telebistaren aurrean jarri, eta “botatzen dutena” ikusten da. Teknologia berriekin ez. Interakzio bat dago. Norbera sartzen da interneten eta norberak erabakitzen du zer ikusi nahi

duen. Eta ez hori bakarrik! Zu jartzen zara harremanetan beste pertsona batekin eta askotan ez dakizu zein den pertsona hori. Eta zuk ere zure burua izkutatzen duzu. Hor komunikazio birtuala dago eta horrek esan nahi du, sozializazio birtuala dagoela. Oso berria da eta asko interesatzen zait gai hau.

Helduei buruzko ikerketak ere egiten dituzu, ezta?

Bai. Espainia mailan eta Euskadi mailan ikerketa asko egin dut baloreei buruz. Momentu honetan, hil honen bukaeran, ‘Españako baloreak 2008’ aurkeztu behar dugu. Euskadi mailako datuak ere badauzkagu eta nire Deustuko taldea Euskadikoa ere egiten da. Nafarroako datuak ere baditugu,

beraz, Iparraldekoak falta zaizkigu.

Baloreei buruzko beste ikerketa bat koordinatzen ere naiz Katalunian. Katalunian nahiko ezaguna naiz eta lan asko eskatzen dizkirate. Gero eta gehiago lan egin nahi dut arlo horretan. **Aspalditik ari zara gizarteko balioak aztertzen. Asko aldatu al dira?**

Aldaketak badaude, garrantzitsuak gainera. Joan den astean Bartzelonan hitzaldi bat eman nuen, ‘Persistencia y evolución de los valores de los españoles 1908-2008’. Horrekin dena esaten dizut. Balore batzuk hor daude, ez dira aldatu, eta beste batzuetan aldaketa handia izan da. Zer ez da aldatu? Orain dela 60 urte, orain dela 30 urte eta gaur egun ere bai, familia denon-



tzat garrantzitsuena da, arrakasta duen familia, harreman ona duen familia.

Zein aldaketa egon da adibidez? Gizartea gero eta individualistagoa da. Segurasko, hori da aldaketarik handiena. Espainian eta baita ere Euskal Herrian, proiektu kolektiboek indarra galdu dute. Proiektuak gero eta individualagoak dira. Izugarritzko aldaketa da hori. Europako hauteskundeak ditugu horren adibide. Europa ez zaigu interesatzen, gure herria interesatzen zaigu, gure auzoa. Egunkarietan gero eta gehiago sartzen dituzte herrietako berriak. Momentu honetan, mundializazioan bizi garela esaten da. Hori egia da, baina hori baino inportanteagoa dena da, mundu lokalistan bizi garela. Proiektu kolektiboak galdu ditugu. Gertutasunaren logika daukagu.

Aldaketa horrekin, ideologia nagusiak aldatu dira: bai ideologia politikoak, bai ideologia erlijiosoak, bai ideologia sozialak. Ez dute orain dela 20-40 urte zuten indarrik. Objektu aldaketa gertatu da. Lehen jendea kezkatuta zegoen, hilda ge-

ro zer izango zenaz. Orain ez, nola iritsiko garen azken momentura. Izpirituaeren erlijiotik, gorputzaren erlijiora pasatu gara. Aldaketa nagusienetariko bat hor dago.

Politikan, guk frankismoaren ondoren genuen ilusioa asko galdu da, asko apaldu da. Hala ere, Euskal Herrian handiagoa da oraindik bere indarra.



Sozialean, jendea ez dago beste gizarte bat lortzearen alde. Gu gazteak ginean, gutxigorabehera denok ginen sozialistak. Alkakaketaren sozialistak. Pentsamentu Bakarra dago orain.

Zer gertatzen da orduan? Nire familiaren proiektua, nire lagunaren proiektua eta kitto.

Familia bera ere aldatu da. Gaur egun, familia mota asko dauzkagu. Horrek ere eraginik ba al du?

Nik ez nuke esango familia eredua. Familia nukleo ereduak aipatuko nituzke. Zein aldaketa daude? Inportanteena da, emakumea etxetik atera dela baina gizona ez dela etxean sartu. Eta ez hori bakarrik: gero eta gehiago gaztetxoak eta haurrak

bakarrik hazten ari dira. Hori bai, pedagogoak dauzkate, kaleko hezitzaileak... Sozializazioa beraiek bakarrik egiten dute, etxean ez dago inor. Eta etxean norbait baldin badago, oso nekatuak egongo dira, zortzi ordu lan eginda. Etxera iritsi eta lasai egon nahi dute. Hori normala da, pertsonak dira eta. Play stationa hartu, telebista ikusi... nahi duzuna egin baina utzi nazazu pakean esaten dute gurasoek. Hori ulertzekoa da. Nik ez dut esaten kritika bat bezala. Gizartea aldatu da.

Gure gizartean gero eta gehiago eskatzen diogu bikoteari. Hori ere oso gauza garrantzitsua da. Hor zer gertatu da? Emakumearen bidetik etorri da aldaketa.



Datu teknologiko oso garrantzitsu bat dago hor: pilula. Pilularekin, lehenengo aldiz, emakumea bere gorputzaren jabe izan da. Orain arte ez, gizona zen jabea. Emakumearen eskutan dago noiz gelditu haurdun. Aldaketa izugarria izan da emakumearentzat. Hortik etorri dira aldaketa soziologiko asko. Hortik etorri da, independentziaren aukera. Pilula izan da lehenengo arrazoa, emakumea unibertsitatean, lan munduan sartzeko... Lehen esan dugun bezala. Aguantatu? Zure aitak aguantatuko zaitu! Emakumea bere biziaren jabe da eta hori izugarritzko konkista soziala da. Horrek noski, ondorioak ekarri ditu: alde batetik, gero eta haur gutxiago daudela eta

beste aldetik, haur hori askotan bakarrik hazten dela. Ondo esplikatu nahi dut. Horrekin ez diot emakumeari errua bota nahi. Hori datu soziologiko oso garrantzia da eta horrekin aldaketa asko etorri dira: dibortzioa adibidez. Lehen pertsona batekin ezkontzen zinen eta lotuta zinen, ezin zenuen aldatu. Momentu honetan, zure bikotearekin gelditzen zara, lotura psikologikoa baldin badago. Gero eta dibortzio gehiago egongo dira. Izugarritzko aldaketak sortu dira familietan. Euskadi mailan iritsiko gara bitik bat apurtuko den bikotera. Oraindik ez gaude hor baina nik uste dut berehalaxe iritsiko gara.

Emakumearen iraultza honek ondorio batzuk izan ditu. Zein irtenbide planteatzen duzu?

Hori asmatuta dago, ez dugu asko pentsatu behar. Nik pentsatzen dut, feminismoetik feminitatera pasatu behar garela. Orain momentu honetan, ideologia nagusia da, berdintasuna da. Berdintasunaren Ministerio bat daukagu Espainiako Gobernuan. Ni aurrerago noa.



Ekitatearen Ministerioa behar genuke. Ekitateak esan nahi du, ez garela berdinak. Horrek ez du esan nahi, bat bestearen jabe izan behar duenik. Hori, patriarkalismoa da. Gizonezkoek eta emakumezkoek, funtzio ezberdinak ditugu. Nik gero eta gehiago pentsatzen dut, urtebete eta bi urte bitartean, emakumeek haurrak, gizonezkoek baino hobeto

Orain dela 60 urte, orain dela 30 urte eta gaur egun ere bai, familia denontzat garrantzitsuena da, arrakasta duen familia, harreman ona duen familia.

zaintzen dituztela. Hori mundu mailan horrela izan da eta animalietan ere bai. Datu biologiko nagusi baten aurrean gaudela ikusten dut. Orain ulertzen da datu biologiko hau zergatik ez den ondo hartzen. Batzuk ez dute ondo hartzen. Batzuk uste dute, emakumearen kontrako diskriminazioa dela.

Urte bat edo bi urte beraz emakumea haurraren zaintzan jarriko zenuke.

Bai, baina ez dauka zertan etxean egonik. Sistema asko daude, eta asmatua dago. Ipar European aplikatzen da. Frantzian ere bai. Horrek esan nahi du, bere baloreen jartzea, zein garrantzitsua den haurrak pozik haztea. Argi eta garbi dago, familia ondo baldin badago, lekuri inportanteena dela. Horretan egin behar da lana. Emakumeak lagundu behar dira. Agian ordu batzuk egin beharko lituzke kanpoan, baina etxean ere bai. Eta hori, ordainduta. Ordaindu behar da etxean egiten den lana. Ez ordaindu limosna bat izango balitz bezala. Soldata bat bezala ordaindu behar da. Eta ez



bakarrik dirua eman. Lanpostua bermatu behar da. Adibidez: Unibertsitatean irakaslea baldin bada emakume bat. Irakasleek lanak egin behar dituzte, ikerketak egin behar dituzte bere curriculum osatzen joateko. Bi urtean geldi egoten baldin bazara, zure curriculumean bi urte horiek galduko dituzu. Hori garbi dago. Baina kontuan hartu be-

har da, hori baloratu egin behar da, promoziorako momentuan. Etxean egotea ere baloratu egin behar da. Unibertsitatean, katedraduna izateko puntuak behar dituzu. Emakumea etxean egoten bada, hori ere puntuak bezala hartu beharko litzateke. Hori ez da diskriminazio positiboa. Hori da kontuan edukitzea, zein garrantzitsua den umeak behar den bezala haztea. Munduan, gizarte guztietan, ama izan da. Feministek ez dute teoria hau onartzen.

Haurra, lau hilabeterekin eskolan sartzen da.

Gauza bat da haur bat lau hilabeterekin eskolan sartzeara eta beste gauza bat da, etxera etortzen denean, zer nola dauden bere gurasoak.



Bere gurasoek, lana egin baldin badute, normalean, nekatuta egongo dira.

Espainiako Gobernuari aurkeztu behar diezun ikerketa lan horretan, proposatu behar diezue neurri hauek hartzea?

Bai, bai. Poliki-poliki ari naiz hori esaten. Orain dela 40 urte, emakumeek, bost, sei, hamar haur zeuzkaten. Nire sistemarekin ez litzateke posible. Baina momentu honetan ez. Momentu honetan, Euskadin, emakumeek normalki, haur bat edukitzen dute, gehienez bi. Ezin dugu konparatu orain dela 50 urteko historiarekin. Noski, gizonak ere aldatu behar dutela. Aldaketak badaude horretan, baina gizonak ere etxeko lanak egin egin behar dituzte, ez orain

40 urte bezala. Etxera joan eta zer dago bazkaltzeko galdetzen zuen. Hori oraindik ere ikusten dugu kultura batzutan. Baina hor aldatuta handiak egon behar dira.

Oso interesgarria da, generoaren ideologia. Gizartean emakumeek eta gizonen zein eragin daukaten eta aitak eta amak familietan zer



eragin daukaten. Pil-pilean dagoen gaia da.

Genero indarkeria asko entzuten dugun azkenaldian.

Ni ez nago ziur, gaurko biolentzia orain dela 40 urteko biolentzia baino handiagoa denik. Bai helduetan, bai gazteetan eta bai familia barruan. Ez nago ziur.

Gaur egun, jakin egiten da.

Gaur egun jakin egiten da bai, eta beste kontzientzia bat dago. Zenbat gizonen ez dute jo bere emaztea orain dela 40 urte? Inork ez zuen ezer esaten. "Hil nuen, nirea zelako". Ez hori bakarririk. Zenbat bortxaketa egon dira gure herrian? Gizona mozkortuta iritsi etxera. Jaitsi kuleroak, bero-bero nator eta! Lehen ez zen



esaten. Beraz, ez nago ziur gaur egun biolentzia gehiago dagoenik. Zabaldut egiten da, ikerketak egiten dira eta abar.

Beste gauza bat ere esango dizut. Niretzat, genero indarkeria gehiegi azaltzen da komunikabideetan. Gehiegi zabaltzen da. Hor datuak baditugu, askotan gertatzen da: biolentzia genero kasu bat egon baldin bada, hurrengo hiru-bost egunetan beste biolentzia kasu batzuk egoten dira. Zergatik? Kontzientziatik ekintzarako pausoa dela esaten da. Hau egingo nioke, bestea egingo nioke... pentsatzen duen gizonak egunkarietan irakurtzen edo telebistan ikusten duenean, nik ere berdina egingo dut pentsatzen du. Imitazio efektua da.

Gai hori oso landuta dago beste biolentzia batekin: suizidioarekin. Frantzian, oso kezkatuta daude gazteen suizidioekin eta kanpainak bat egin zuten, suizidioaren inguruan, orain bost urte. Gazteei azalduz, suizidioak zein eragin zuen, beste sistema batzuk badaudela beraiei laguntzeko...

Pilularekin, lehenengo aldiz, emakumea bere gorputzaren jabe izan da. Ordura arte ez, gizona zen bere jabea.

Zer gertatu zen? Suizidio kopurua handitu egin zen. Orduan erabaki zuten, suizidioaren gaiei, tratamendu baxua ematea komunikabideetan, gehiegi ez azaltzea. Esan bai, baina zehaztasun gehiegirik gabe. Nik uste dut, teoria horrek, segurasko, genero indarkeriarentzat ere balioko duela. Ez dut esaten, albiste hori ez dela eman behar. Ez ireki albistegiak gai horrekin. Horrek benetan, laguntzen du genero indarkeriaren kopurua murrizten? Nire ustez, ez. Legea aldatu behar da, baina ez hainbeste azaldu komunikabideetan. Imitazio efektua sortzen du horrek. Teorikoki demostratua dago hori.

Gazteen arteko indarkeria ere albiste izaten da sarri.

Nire azken liburuan, 'La voz de los adolescentes', momentu batean kontatzen dut, nolakoa zen gure biolentzia gu gazteak ginenean, Beasainen bertan. Beasaingo lagunekin elkartzen naiz oraindik ere eta duela urte batzuk, bazkari batean, gogoratzen egon ginen, zertan jolasten genuen. Gerratara jolasten genuen. Eta hori kontatzen dut nire liburuan. Ni Beasaingoa naiz, Geltokiko auzokoa. Gerrak egiten genituen, Plazako gazteen aurka. Gerra zer zen? Gerra gunea, herri guztia zen. Makilarekin ezpata egiten genuen eta elkarrekin borrokan aritzen ginen. Guk bagenekien, hura, joko bat zela eta muga batzuk zeudela. Behin gogoratzen naiz, borrokan ari ginela, behin harri batekin buruan jo eta odoletan gelditu zen. Berehala bukatu zen gure gerra! Medikarengana joan ginen korrika, Cesareo Ugarte zen bera. Bere semea ere gurekin ari zen gerran. Cesareo Ugartek zauria ikusi zuenean, hori ez da ezer ez! esan, sendatu eta hala esan zion: jarraitu baina kontuz ibili! Hor bu-

katu zen dena. Zer esan nahi dut horrekin? Guk bagenekien jolasa zela eta mugak ere bazeudela. Eta horretan badago aldaketa. Gaur egun gazteek, biolentzia ez dute joko bat bezala hartzen, espektakulu bezala baizik, eta mugarik gabe. Nire ustez, biolentzia gutxiago dago, baina dagoena gogorragoa da. Orain ikus-

genuela. Orain hori egitea? Espediente! Gazteek askotan bere agresibitatea, fogsitatea ezin dute azaldu. Beste aldetik, telebista ikusten baldin badute, bideo jokoak... biolentzia besterik ez dago. Espektakulu bat bezala ikusten dute eta imitazioa egiten dute. Kontradiozio handia dago gure gogorartean.

Orain momentu honetan, ideologia nagusia berdintasuna da. Berdintasunaren Ministerioa dago Madrilen. Baina ni aurrerago noa: Ekitatearen Ministerioa behar genuke. Ekitateak esan nahi du, ez garela berdinak.

Gaur egun gazteek, biolentzia ez dute joko bat bezala hartzen, espektakulu bezala baizik, eta mugarik gabe.

Gaur egun gazte materialki aberatsak dira, baina pobreak erreferenteetan. Gaztea izatea oso zaila da, gure garaian baino askoz ere zailagoa.

ten da, gazteak eskaleak jotzen, gurasoak jotzen... hori gure garaian ez zegoen. Aldaketa badago beraz.

Galdera da, zergatik? Horretan ere badaukat nire teoria: ni gogoratzen naiz, gaztetan, klasea bukatu, futbolearen hasi eta elkar jotzen

Orain ikusten dugu, gurasoek haurrari zaplazteko bat ematen baldin badiete... Jaken gertatu zen duela hila-bete batzuk: emakume bat tek semea zaplazteko bat eman zion, erori zen eta mina hartu zuen. Hurrengo egunean maisua konturatu

zen eta parte eman zuen epaitegian. Epaila batek, bi urte pasatuta gero, esan zuen, urte eta erdian ezin zela semearengana gerturatu. Baina burutik jota al gaude? Epailak ondo egin zuen, horrela dago legea. Eta lege hori parlamentutik pasa da eh? Biolentzia onargarria badago.

Gaur egun ezin zaio ume-ari ipurdiko bat eman.

Ez da posible hori. Niri behin maisuak, zaplazteko bat eman zidan. Arrazoia zeukala pentsatzen dut. Eta hemen nago ni. Gaur egun, mimokeria da nagusi. Gizarte aseptiko bat nahi dugu eta hori ez da posible. Gauzak bere neurrian egin behar dira.


Haurrei ezetz ere ez zaie esaten.

Hori beste gauza da. Uler-tzekoa da zergatik gertatzen den. Gaur egun oso zaila daukagu ezetz esatea. Hori zergatik? Frankismoa urruti dago baina hor dago oraindik: 68ko maiatzeko eslogana sortu zen: debekatuta debekatzea. Denbora askoan, permisibitate handia egon da. Eskubideak bakarrik, beharrik ez. Ideologia hori izugarritzko indarrarekin sartu zen Espainian eta Euskadin, frankismoaren ondoren. Horri atzera mar-txa sartzea ez da erraza. Galdetu irakasleei nolako zailtasunak dituzten klasea kkontrolatzeko. Izugarritzko aldaketa egon da horretan. Ez da bakarra, baina hori da azalpen bat. Baina jendeari ez zaio azaldu, frustrazioa ere garrantzitsua dela. Ez frustrazioak bilatzea, baina jakitea batzutan, bizitzan, ezin dugula nahi duguna egin. Oso garrantzitsua da bizitzaren ikuspegia edukitzeko. Bizitzan gauza batzuk onak daude eta beste batzuk ez. Gauza batzuekin ados gaude eta beste batzuekin ez. Jakin behar dugu hori dena kontrolatzen eta horrekin gure bizitza egiten.

“Ez nuke gaztea izan nahi”

**Askotan esan izan da, 18 urte
izango banitu... Gaur egun
gaztea izatea erraza al da?**

Ez, konplikatua da. Gure gizarte-
tean baino askoz ere zailagoa.
Guk errazagoa izan genuen.
Orain gauza gehiago daukate
eta denetarik, materialki. Baina
bere etorkizuna oso iluna dago.
Hain zabala da, iluna da! Gure
garaian, institutu bakarra zego-
en, Donostian. Orain, Beasain-
en ere badago, Tolosan, Ordiz-
ian, Zumarragan... gauzak ba-
dituzte. Zer falta zaie? Gizarte
bat, erreferente batzuekin. Be-
raiek egin behar dituzte beraien
erreferenteak. Gaurko gazteak,
autonomoak dira. Autonomo hi-
tzak zer esan nahi du? Berak be-
re legea egin behar dutela. Hori
oso zaila, izugarri zaila. Horre-
gatik, nik pentsatzen dut, mate-
rialki oso aberatsak direla, baina
oso pobreak erreferenteekin.
Gaztea izatea oso zaila da, gure
garaian baino askoz ere zaila-
goa. Jende askok esaten du: ez
nuke gaztea izan nahi! Hori go-
gorra da eh!



Goierritarra
943 16 00 56
goierritarra@goierrikohitza.info

GOIERRIKO hitza
943 16 00 56
goierri@goierrikohitza.info

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia


**UDAKO MATRIKULA
ZABALIK!**

ESKOLA LAGUNTZA - TAILERRAK
UNIBERTSITATE MAILA
INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net




kutxa



Josu Sarriegi, Greziako futboleant

Josu Sarriegi lazkaotar futbolariak, Greziako Ligan jokatzen du Panathinaikos taldean. Hiru urterako kontratua sinatu zuen eta dagoeneko bi urte egin ditu. Gustura dabil Grezia aldean, nahiz eta oraindik Liga irabaztea ez duen lortu. Championsen ere jokatzeko aukera izan du eta Interrren zelaian, gol garrantzitsua sartu zuen lazkaotarrak. Bakarra, baina garrantzitsua. Oporretan Lazkaora etorri da eta tartertxo bat kendu diogu, denboraldiaz eta futbolaz hitz egiteko.



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28




mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



Zer moduzko denboraldia egin duzue?

Liga irabazi egin behar da eta ez dugu irabazi. Azkeneko urte pila batean, Olimpiakos ari da dena irabazten. Olimpiakos eta Panathinaikos, txakurra eta katua bezala konpontzen dira. Bat gaizki baldin bada, bestea kontentu dago. Azkeneko 13 bat urteetan, behin bakarrik irabazi du Liga Panathinaikosek. Ea aldatzen den hau behingoz. Bigarrenak gelditzeak ez du balio. Nahiz eta Championseko ondo ibili, falta zaigu.

Liga bat irabaztea handia izango da ezta zuretzat?

Hemen zaila da irabaztea eta Greziara joan eta aukera edukita, nahi izaten da. Ikusiko dugu. Momentuz, azkeneko urtea gelditzen zait eta ikusiko dugu ea eraman dugun.

Championseko jokatzeko aukera behintzat izan duzu aurrean eta datorren denboraldian ere izango duzu.

Bi kanporaketa pasatu behar ditugu lehenengo, A taldera sartzeko. Ez da erraza izaten baina ia lortu genuen.

Denboraldia garaiz hasiko duzue orduan.

Bai, uztail bukaeran lehe-

Egia esanda,
gol bakarra sartu
dut eta hura
San Siron izan zen.
Klubarentzat,
jarraitzaileentzat
eta niretzat ere bai,
oso gol
garrantzitsua
izan zen.



nengo kanporaketa edukiko dugu. Ekain bukaeran beraz, berriz ere entrenatzen hasiko gara. Aurrean, opor motzak ditugu. Denboraldi luzea egiten da. Iaz ere ekain bukaeran hasi genuen eta maiatzaren 31ra arte. Ia 11 hilabete. Luze egiten da.

Pertsonalki, zer moduzko denboraldia egin du Josu Sarriegik?

Normalean jokatu egin dut, ia partidu gehienak jokatu ditut. Jokatzeko ditzunean, normalean ona izaten da. Betikoa, tituluren bat falta da, norbera ere gusturago sentitzeko. Pertsonalki egia esanda, orokorrean, gustura.

San Siroko gola berezia izango zen.

Egia esanda, gol bakarra sartu dut eta han izan zen. Suerte. Batzutan horrelako gauzak gertatzen dira. Klubarentzat, jarraitzaileentzat eta niretzat ere bai, oso gol garrantzitsua izan zen. Panathinaikosek lehenengo aldiz irabazi zuen Italian eta Championseko taldean au-

rera egiteko balio izan zigu.

Gol haren ondotik, elkarriketak eta izango zenuen komunikabideetan....

Bai, baina han entrenamendu guztiak atea itxita egiten dira. Alde horretatik, askoz ere lasaiago bizi gara. Prentsa ezin da sartu, onartuta ez badago. Elkarriketak egiteko ere itxita edukitzen dituzte atea. Alde horretatik, lasai.

Hemen bezala, egunero ko prentsakurrekoak ez dituzue izaten beraz.

Ez. Partiduaren ondoren, nahi duenak hitz egiten du, norberaren esku dago. Alde horretatik lasaiago. Hizkuntza ere ez dugu ulertzen eta paso egiten dugu. Onerako edo txarrerako, ez gara entrentzen zer esaten duten gutaz.

Hemen bezala, kirol prentsarik ba al dago?

Pilo bat.

Informazioa nola lortzen dute orduan?

Azti egoten dira denerako. Adibidez, Diario Vascon el-

karrizketa bat egiten baduzu, enteratuko dira eta handik aterako dute informazioa... ahal duten lekutatik informazioa ateratzen ibiltzen dira. Edo saiatzen dira jokalarietatik ahal dutena ateratzen edo filtrazioaren bat... Ahal duten guztia egiten dute, askoz ere zailagoa baitaukate. Arratoiak bezala ibiltzen dira.

Zaleen aldetik, beroak direla esaten da.

Batez ere, futbol-zelaian eta saskibaloia kasuan, kantxan. Kontuz ibili behar da horiekin, edozer gauza egiteko gai dira. Elkartuta daudenean, askoz ere sutsuagoak dira. Banaka daudenean, lasaiago ikusten dituzu eta kalean ibiltzeko garaian nahiko lasaiak dira eta ez dago inongo arazorik.

Josu Sarriegi, futbolari bezala, asko aldatu al da?

Bai, beharbada bai. Han beste gauza batzuk eskatzen dira eta hango ohituretara edo futbolera moldatu behar zara. Beste ezaugarri batzuk hartzen dira. Baina ez da gehiegi ere.

Zein dira aldaketa horiek?

Liga irabazi nahi duen talde batera joaten bazara, ondo jokatu behar da... Mentalki txipa ere aldatu behar da: beti irabazi behar duzu. Hemen, zauden taldearen arabera, beste behar batzuk daude. Berdinketa bat beharbada on da... han beti irabazi behar da. Txip aldaketa hori egin behar da.

Greziako Ligan taldeen artean maila aldetik, alde handia al dago?

Bai. Lau-bost talde ibiltzen dira aurrean. Normalean, Olympiakos, Panathinaikos, AEK, aurten adibidez Paok sartu da oso fuerte... Normalean Salonikako taldeak oso fuerteak izaten dira. Bigarren mailatik igotako taldeak, ekonomikoki ez dira oso fuerteak izaten, ezin dute talde indartsu bat egin eta arazo asko izaten dituzte. Normalean, nahiko ahulak izaten dira, hemengo lehenengo mailakoekin konparatuz. Gerra ematen dute bai, irabaztea beti da zaila. Diferentzia handia dago hemengo lehenengo mailarekin alderatuz.

Taldean, mundu guztiko jokalariai zaudete ezta?

Bai: Kroazia, Austria, Suedia, Polonia, Mozambique, Hego Afrika, Senegal, Nigeria, Portugal, Argentina, Brasil... gehiago egongo dira baina bi urte hauetan herri horietako jokalariekin jokatu dut. Alde horretatik, oso aberasgarria da. Españolekin eta euskaldunekin ohituta, gehiago landu behar duzu beraiekin, zu ere kanpotarra zarelako. Oso aberasgarria da.

Taldean atzeritarra zara. Hemengo talde batzutan, bertakoei gehiago eskatzen zaie atzeritarrei baino.

Bai, batez ere norberaren aldetik. Etxean zaudenean, erosoago zaudete, bertako bizitzara, bertako kulturara. Han kanpotarra zara eta zu moldatu behar zara aldage-



lara, hizkuntzara... mila aldaketa daude.

Askotan etxekoak ez dira baloratzen.

Askotan hala izaten da. Jokatzan duzun lekuaren arabera izaten da baina batzutan hala izaten da. Askotan

etxekoei gehiago eskatzen zaie, erantzunkizun gehiago. Nik uste dut, alde horretatik, etxeko futbolariak presio gehiago izaten duela. Eta nire ustez, ez da justua. Etxekoari gehiago eman behar zaio.

Euskal futboleko laburbildu egiten da futbola nola dagoen. Euskal Herrian talde mordo bat dago maila altuan eta ez da erraza hainbeste talde mantentzea.

Greziara ikasten

Greziara ikasten ari al zara?

Saiatzen ari gara emaztea eta biok. Ahal duguna egiten ari gara, baina zaila da. Oso ezberdina da. Idatziz ere bai... Irakurtzen hasteko ere arazoak, pentsa hortik hizkuntza ikasteko. Hitz batzuk, agurrak, ohiturak... ari gara ikasten.

Zein bizimodu egiten duzue?

Azkeneko urtea hemen pasatu genuenaren, Athleticen ibili nintzanean, oso antzekoa. Orduan Berangon bizi ginen. Alde horretatik ez dugu diferentziarik nabaritu. Herria urrutiago dagoela, familia eta lagunak ezin ditugula egunero ikusi, baina bestela bizia ez zaigu aldatu. Eguraldia bai, neguan hobeto gaudete.

Erraza izan al zen Greziara joateko erabakia?

Hiru urterako joan baina azkar pasatu dira bi urteak. Athleticen aurreneboraldian Holandan nengoela hartu nuen erabakia. Berehala hartu behar izan nuen. Neskalagunarekin hitz egin, familiarekin... telefonoa sutan eduki nuen. Azkar erabaki behar nuen. Athletic-en ere ez zuen nirekin kontaktzen Caparrosen eta batez ere horregatik joan nintzen.

Zure izen-abizenak ondo ahoskatzen al dituzte?

Ez, bi r-rekin ez dira ondo moldatzen. Sariegi edo esaten didate. Josu, ondo esaten dute.

Zer moduzko giroa daukazue aldagelan?

Ona. Lehenengo egunetik ondo. Suerte eduki nuen, argentinar pare bat zeudela eta asko lagundu zidaten, batez ere lehenengo egunetan. Hasiera-hasieratik, oso gustura, inongo arazorik ez. Gure klubean denak dira ongietorriak eta denak ondo konpontzen gara.

Hemengo futbola jarraituko duzu ezta? Alaves jaistera doa, Realak ezin

igo, Osasuna ia jaitsian, Bilbo ere hortxe...

Athleticek Kopako finala hortxe eduki duela baina gainerakoan albiste on gutxi. Athletic nahiko ondo salbatu da. Realaren eta Alavesen kasuak antzekoak dira. Arazo ekonomikoak nabaritu egiten dira. Aldaketa asko egin behar dira, taldea ezin duzu nahi duzun bezala indartu eta helmugara iristeko zaila izaten da. Alavesen kasuan, nik uste dut zuloa eta arazoa hain handia dela... pena da. Azkeneko urteetan egia esan, poztasun handirik ez da izan.

Euskal futboleko laburbildu egiten da futbola nola dagoen. Euskal Herrian talde mordo bat dago maila altuan eta ez da erraza mantentzea hainbeste talde. Ikusten da talde guztiak ekonomikoki arazo handiekin daudela. Lehen Bigarren mailan zen arazorik handiena, eta orain Lehenengo mailako talde han-

diak ere bai. Valentzia pentsa ze indartsua den eta arazo handiekin dabil. Ekonomikoki zailtzen ari da eta azkenean horrek arazo asko ekartzen ditu, oraintxe euskal taldeak sufritzen ari direna.

Beste batzuk berriz, fitxaketetan, diru piloa gastatzen. Real Madriden kasua dago hor.

Nik ez dakit nola egiten duten baina... Futbola ikusteko beste era bat da. Madril-ek jende asko dauka atzetik eta beharbada horrelako fitxaketak egin ditzake, badakiela-ko berreskuratuko duela marketingarekin.

Zuretzat, irudika ezinezko kopuruak izango dira ezta?

Gure futbol mailatik aldentu egiten da, gu dezent-umilagoak eta normalagoak gara.

Bartzelonamariarik iritsi al da Greziara?

Han asko ikusten dute Europako futbola. Batez ere, apustuzaleak dira eta Liga guztietan jokatzen dute. Austriako talde guztiak zeintzuk diren jakingo

dute, Suediakoak... Izugarria da. Espainiako Liga ere jarraitzen dute. Telebistan ere liga pilo bat ematen ditzute. Bartzelona nola dabilen denek dakite. Azkenean nor ez da liluratu aurten egin duenarekin.

Barçak, jendea, futbola ikusten jarri du.

Egia da. Azkeneko urteetan ez zegoen talde bat hain erraz eta hain ikusgarria jokatzen duenik.

Ume askok futbolaria

izan nahi dute handitan. Zer esango zenieke?

Gogorra dela. Azkenean, guk lan bezala daukagu eta lan guztiak bezala, gogorra da. Gauza hobeak, gauza okerragoak... Nik noski, gozatu egin dut baina alde txar asko dauzka. Lan asko egin behar da eta zorte handia eduki behar da. Ona zarelako bakarrik ez zara iristen. Borroka asko egin behar da eta zorte handia eduki behar da.

Urtebete falta zaizu Panathinaikosen. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Normalean bukaerara arte ez dute ezer esaten, nola eta oso ziur ez dauden.

Itxoin egin behar.

Ikusi egin behar denboraldian jokatzen ari zaren ala ez... Askotan buruak aldaketa bat ere eskatzen du...

Datorren urteko oporretan beharbada, malleta guztiekin etorri beharko zarete.

Igual, eta badira makina bat! Ikusiko dugu zer gertatzen den. 31 urterekin bukatuko nuke. Hor- tik aurrera, gauza gutxi. Hori onartu behar- ra da- go.



Urtebete falta zait Panathinaikosen kontratua bukatzeko. 31 urte izango ditut.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elozegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Beasain

Arriarango festak

Ekainak 27, larunbata:

19:00etan: Suziriak eta buruhandiak.

20:00etan: Herri poteoa.

21:00etan: Herri afaria. Ondoren, dantzaldia Xapre eta bere taldearekin.

Ekainak 28, igandea:

12:00etan: Pilota partiduak.

16:00etan: Haur jolasak.

18:30ean: Herri kirolak: aizkora.

21:00etan: Herri afaria. Ondoren dantzaldia, Xapre eta bere taldearekin.

Ekainak 29, astelehena:

11:00etan: Suziri eta buruhandiak.

11:30ean: Meza Nagusia.

12:00etan: Hamaiketako herritarrentzat.

14:00etan: Herri bazkaria. Ondoren bertsolariak eta dantzaldia Kupela taldearekin.

17:00etan: Mus eta puntu txapelketa.

21:00etan: Herri afaria. Ondoren dantzaldia, Xapre eta bere taldearekin.

Ezkiagako festak

Ekainak 27, larunbata:

14:30ean: Paella herrikoia.

18:00etan: Musika jaialdia.

Ekainak 28, igandea:

10:00etatik 13:00etara: Puzgarriak.

16:30etik 18:30era: Puzgarriak.

19:00etan: Buruhandiak eta Txistulariak.

20:00etan: Txistorra eta sardina jana.

22:00etan: San Pedro bezperako sua.

Ordizia

Otegienea-Majoriko festak

San Joan jaiak ospatuko dituzte ekainaren 19tik 23ra bitartean, Ordiziako Otegienea eta Majori auzoan. Jarraian duzue egitaraua:

Ekainak 19, ostirala:

18:00etan: Suziria.

18:00etan: Haur krosa.

19:30ean: Buruhandiak.

22:00etan: Musika.

Ekainak 20, larunbata:

11:00etan: Marrazki lehiaketa.

11:00etan: III. Sukaldaritza txapelketa.

12:30ean: Euskal dantzak.

13:30ean: III. Sukaldaritza txapelketaren sari banaketa.

16:30ean: Otegienea-Majoriko I. Mus txapelketa.

16:30ean: Haur jolasak, marrazki lehiaketaren sari banaketa.

19:30ean: Buruhandiak.

22:00etan: Dantzaldia.

23:30ean: Mozorro lehiaketa.

Ekainak 21, igandea:

11:00etan: Ipuin kontalaria.

12:00etan: III. Patata-tortilla lehiaketa.

13:00etan: Oroith Txiki eta Alaitasuna abesbatzak.

13:30ean: III. Patata-tortilla lehiaketako sari banaketa.

16:30ean: Toka lehiaketa.

18:30ean: Gorriti eta bere animaliak.

20:30ean: Buruhandiak.

Ekainak 23, asteartea:

19:30ean: Sardina jana.

22:00etan: San Joan sua.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin ☒ aukeratutako kaxan☐ **GOIERRITARRA** 27 euro☐ **GOIERRIKO hitza** 67 euro☐ **GOIERRITARRA** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela
helbide honetara:
Goierritarra
Urbalde plaza 7 behea
Beasain

Harpidedunen
arreta zenbakia:
902 82 02 01

Lazkao

Kutur ekintzak

Ekainak 20, larunbata:

20:00etan: Opera tailerraren emanaldia, Areria Kultur gunean.

Ekainak 23, asteartea:

17:00etan: Txindoki gerontologikoan San Juan sua. Txindoki gerontologikoan autonomien eguna.

22:00etan: San Juan sua, Oin Arin dantza taldea eta Lazkao Txiki musika eskolako trikitixa taldearekin, Plazan.

Ekainak 27, larunbata:

16:00etan. III. Goierri Beheko eskolaumeen pilota txapelketa, azkenak, Plazako pilotalekuan.

Ekainak 29, astelehena:

19:00etan: San Benito ikastetxeko antzerki taldearen emanaldia: 'Gurasoak', Areria Kultur Gunean.

Segura

XVI. mendeko arropen erakusketa

Segura bere erroetan murgilduz I. Aste Kulturalaren barruan, XVI. mendeko arropen erakusketa ikusgai dago Ardiarra etxean, abuztuaren 1era bitartean. Euskal Herriko hainbat lekutan erabilitako jantzien kopiak dira. Horretarako, garai horietako grabatuak arretaz aztertu dira. Guztira emakume eta gizonezkoen 10-15 maniki ezarri dira. Garai honetako jantzien ezaugarri nagusienetarikoa bat, emakumeek eramaten zuten burukoak dira. Hauek buru gainean jartzen zuten zumezko armazoi batez osaturik zeuden eta oihal batekin forratzen zituzten. Kasu batzuetan, armazoiaren ordean, bere ilea erabiltzen zuten forma emateko.

Erakusketaren ordutegia: astelehenetik ostiralera, 11:30etik 13:30era eta 15:30etik 17:30era; eta asteburu eta jaiegunetan: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Beasain

San Joan sua

Ekainak 23, asteartea San Joan bezpera ospatuko da Barrendain plazan.

21:30ean: Txistularien igoera Barrendain plazara.

22:00etan: Neskaten esku-dantza. Aurtzaka eta Ostadar dantza-taldekako neskaten eskutik.

22:30ean: San Joan suaren piztea.

22:30ean: Dantzaldia "Koskola" txarangarekin.

Legorreta

San Joan sua eta sardina erreak

2009ko herri jaietan dantza emanaldirik izan ez zenez, ekainaren 23an, 21:00etan, San Joan bezpera festarekin batera Dantza taldearen emanaldi nagusia izango da. Horrekin batera, sardinak erre eta salduko dituzte, herriko plazan.

Zatoz Zientziaren aurpegi alaienaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza

www.miramon.org

943 01 24 78

DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?

kutxa

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak, Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89

ABALTZISKETA

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN



Ormaiztegiko eta Gabiriako lagun taldea Arantzazun, 1955. urte inguruan

Ezkerretik eskuinera: Pablo Gurrutxaga (Zesterone, Ormaiztegi), Juan Elorza (Aranguren Txiki, Ormaiztegi), Hilario Goiburu (Pitxarrondo, Ormaiztegi), Txomin Urkiola (Aunditegi, Gabiria) eta Joxe Antonio Apaolaza (Olalkia-ga, Gabiria).

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

AMEBI

Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



ALTAMIR

JATETXEA

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sententzio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net




faktore

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com




9909

2009KO UDA
VERANO 2009

**NORA JOAN
AUKERATU ZUK**
eta gainontzekoa
egingo dugu guk

T 943 80 53 11
abio@abio.es



eta gainera

**%7^{-ko}
BEHERAPENA**

Visa Viajes Iberia
txartel berriarekin
ordainduz gero



VIAJES
ABIO

BIDAIAK

1999 2009



KARIBE

Punta Cana 9 EGUN / 7 GAU

Riu Naiboa H. ****	DB	695€
Natura Park H. ****	DB	755€
Occidental Gran Punta Cana H. ****	DB	855€
Barceló Dominican Beach H. ****	DB	865€
Iberostar Punta Cana H. ****	DB	875€
Paradisus Punta Cana H. ****	DB	1370€

Riviera Maya 9 EGUN / 7 GAU

Riu Lupita H. ****	DB	695€
Riu Tequila H. ****	DB	755€
Occidental Grand Xcaret H. ****	DB	895€
Iberostar Tucan H. ****	DB	925€
Catalonia Royal Tulum H. ****	DB	925€
Grand Sirenis Maya Beach H. ****	DB	965€

Interak Madridik hegazkinez. Azken prezioak Dena Barne (DB) ereminean eta gela bikotzean. 2009.eko udako iteera jakin batzuetarako baliagarriak. Datak kontsultatu. Viajes Iberia VISA txartel berriarekin ordaintzen dutenei aurrez kontutan hartu gabe dagoen %7ko deskontua ezarriko zale prezioari. VISA deskontua ezartzen den ordaintzetan ezin da atxikitu finantziaketara. Espainian MBNA Europe Bank Limited-ek duen sukurtalean jaulkitako txartela. Finantza-erakundeak emandako balmenari lotua. *Plan precio seguro Viajes Iberia*-ren baldintzak kontsultatu.

BALEAR IRLAK

Mallorca

	EKAINA	UZTAILA	ABUETUA
****-ko hotela	ME 314€	334€	504€
	MO 344€	404€	534€
***-ko hotela	ME 354€	444€	674€
	MO 484€	574€	704€

Menorca

	EKAINA	UZTAILA	ABUETUA
3 perts. Apart.	OS 222€	303€	433€
***-ko hotela	ME 444€	554€	734€

Ibiza

	EKAINA	UZTAILA	ABUETUA
***-ko hotela	ME 324€	434€	584€
	DB 404€	524€	654€

Interak Madridik hegazkinez. Azken prezioak pertsonako, lasak eta kudeaketa gastuak barne, gela bikotzean eta zehaztutako ereminean kontrako azalpenik ezean. Argitaratzean aldatutako hiebetetako iteera jakin batzuetarako baliagarriak. Datak kontsultatu. Viajes Iberia VISA txartel berriarekin ordaintzen dutenei aurrez kontutan hartu gabe dagoen %7ko deskontua ezarriko zale prezioari. VISA deskontua ezartzen den ordaintzetan ezin da atxikitu finantziaketara. Espainian MBNA Europe Bank Limited-ek duen sukurtalean jaulkitako txartela. Finantza-erakundeak emandako balmenari lotua. *Plan precio seguro Viajes Iberia*-ren baldintzak kontsultatu.

DB: Dena Barne (Todo incluido); ME: Mantenu Erdia (Media Pensión); ME: Mantenu Osoa (Pensión Completa); OS: Ostaturia Solik (Solo alojamiento).